

## Funtsezko elkarteak

- Zein dira behar dituzuen bazkide eta hornitzaile nagusiak zuen proiektuak funtziona dezan? Zergatik dira garrantzitsuak guretzako?

Proiektua aurrera eramateko, oinarrizko bi hornitzaile izan beharko ditugu, eta beste bat, guztiz funtsezkoa ez bada ere, bere garrantzia duena.

Alde batetik, osasun-arloko erakunde mediko eta profesionalekin (ospitaleak, klinikak, medikuak, erizainak eta beste osasun-profesional batzuk) lankidetzan aritzea funtsezkoa da hirugarren adineko pertsoneri arreta medikoa emateko. Bazkide horiek zerbitzu medikoak eman ditzakete, osasun-ebaluazioak egin eta arreta espezializatua eskaini.

Bestalde, pertsona horiei laguntza ematen dieten adinekoei laguntzeko erakundeekin (irabazi-asmorik gabeko erakundeak edo gobernu-erakundeak) lankidetzan aritzea oso lagungarria izan daiteke. Erakunde horiek hirugarren adineko pertsonentzako baliabideak, ongizate-programak, gizarte-jarduerak eta garraio-zerbitzuak eman ditzakete.

Bi horiek proiektua aurrera ateratzeko bazkide garrantzitsuenak lirateke, aldiz, garrantzi handiko beste hornitzaile bat zegoela aipatu dugu lehen, adinekoentzako teknologia-hornitzaileak dira hauek. Teknologia zeregin garrantzitsua izan dezake adinekoei laguntza medikoa emateko. Adinekoentzako teknologia espezializatuko hornitzaileekin lan egiteak osasuna monitorizatzeko, komunikazioa errazteko eta adinekoen bizi-kalitatea hobetzeko aukera eman dezake, diseinatutako gailuak eta aplikazioak erabiliz.